



DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDIA BAT HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, BABES ZIBILEKO LAGUNTZAILE LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA.

Giza Baliabideetako zuzendariak honako ebazpen hau onetsi zuen 2026ko otsailaren 16an, honako oinarri hauekin bat:

OINARRIAK

Lehena. Deialdiaren xedea

Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, Babes zibileko laguntzaile lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera, Iruñeko Udalean gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa.

Halaber, parte hartzen ahalko dute Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatu baten nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere, baldin eta zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, haien ondorengoek eta ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hemezortzi urte beteak izatea eta gainditu gabe izatea nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina.

c) Eskola Ziurtagiriaren titulua edukitzea, edo horren baliokidea, edo hori erdiesteko maneran egotea, eskabideak aurkezteko epea amaitzean:

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik bereizita ere.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziiplina-zehapen edo kondena-penalik.

f) Ibilgailuak gidatzeko C motako baimena edukitzea, betekizun hori eskatzen duten lanpostuetan lan egin nahi izanez gero.



g) Ingeleseko C1 mailako titulua edukitzea, titulu hori eskatzen duten lanpostuetan lan egin nahi izanez gero.

2.2. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena. Eskabideak.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdi honen testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: "Izapideak eta lizitazioak", "Lan-eskaintzak", "Enplegu publikoa", "Enplegu publikoko deialdiak", deialdi honi dagokion aipamena.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea online aurkezteko unean, izangaiek, kasuaren arabera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, deialdiaren 2.1. a) oinarrian eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- 2.1 c) apartatuan eskatzen diren tituluen fotokopia.
- Ibilgailuak gidatzeko C motako baimenaren fotokopia, betekizun hori eskatzen duten lanpostuetan lan egin nahi izanez gero.
- Ingeleseko C1 mailako tituluaren fotokopia, titulu hori eskatzen duten lanpostuetan lan egin nahi izanez gero.
- Euskara jakitea merezimendu gisa baloratzea nahi dutenek, B1, B2 edo C1 mailako euskara-titulua aurkeztu beharko dute.
- Desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.



3.4. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

3.5. Aski izanen da agirien kopia soilak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

Laugarrena. Izangaiei onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

4.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, eskabideak aurkezteko 3.2. oinarrian aipatutako izapide elektroniko beraren bidez.

4.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da, hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

4.4. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Bosgarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

5.1. Hautapen-prozesuaren gehieneko balorazioa 112 puntu artekoa izanen da guztira.

5.2. Hautapena proba objektibo batez eginen da; test erakoa izanen da, eta galdera bakoitzak erantzun posible batzuk izanen ditu aukeratzeko, baina bat bakarra izanen da baliozkoa. Galderak mota ezberdinetakoak izaten ahalko dira, hots, egoera bati buruzkoak edo kultura orokorrekoak (batez ere Iruñeko geografia praktikoari lotuak).

Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak, nola zigortu akatsak hainbat aukera dituzten galderetan eta probaren iraupena.



5.3. Hautapen-proban gehienez ere 100 puntuko balorazioa emanen da. Proba gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 30 (30 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

5.4. Probarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaia Nortasun Agiri Nazionala, AlZa, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaia baztertuta geratuko dira.

5.5. Hautaproba egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoan aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

5.6. Proba egin ondoren, udal-webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.

Probaren behin-behineko emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

5.7. Hautaprobaren fasea amaitutakoan, merezimenduak baloratuko dira, kasu honetan, euskara jakiteari buruzkoak, hori egiaztatu eta proba gainditu duten izangaienak. Euskara jakiteak 12 puntuko balorazioa izanen du, gehienez, honako xehetasun hauekin bat:

- euskarako B1 maila: 4 puntu.
- B2 euskara maila: 8 puntu.
- C1 euskara maila: 12 puntu.

Merezimendu-aldian euskara-titulua baloratzea nahi dutenek eskabideak aurkezteko epean aurkeztuko dute titulua, deialdi honen 3.3 oinarrian adierazten den eran.

5.8. Merezimenduen behin-behineko balorazioa Udalaren webgunean argitaratuko da. Behin-behineko balorazio horren aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Seigarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Batzordeburua: Juan Manuel Gil Larequi, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaiburu ordezkia: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendaria.

Epaimahaikidea: Eurne Martínez de Lizarrondo Egozkuezabal, Iruñeko Udaleko segurtasun arloko goi-mailako tituludun teknikaria.

Epaimahaikide ordezkia: Eva Echarri Osinaga, Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako Alorreko idazkari teknikoa.



Epaimahaikidea: Luis Manuel Iribarren Arregui, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.

Epaimahaikide ordezkoa: Alfredo Ondarra Ramos, Iruñeko Udaltzaingoko agente lehena

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Laura Itoiz Marrauren, Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako Alorreko legelaria.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako goi-mailako teknikaria.

6.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoek, kontuan harturik ordezeko izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezeko gisa izendatutakoak, bigarren ordezkapen bat egitea beharrezkoa izanez gero.

6.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Zazpigarrena.- Gainditu dutenen zerrenda.

7.1. Behin probaren eta merezimenduen kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean argitara emanen du deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazio osoaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dio zerrenda, onets dezan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.



7.2. Izangaien puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, proban lortutako puntuaziorik altuenaren arabera ebatziko dira. Berdinketak bere horretan badirau, Giza Baliabideetako Alorrean xede horretarako egindako zozketa bidez ebatziko da.

7.3. Izangai-zerrendak izangaiak deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat eginen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiari, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Zortzigarrena. Izangaien zerrendak eta dei egitea.

8.1. Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko du izangai-zerrenda, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

8.2. Proba gainditzeko izangaiari Iruñeko Udalean sortzen diren beharren arabera deituko zaie, deialdi honen oinarrietan ezarritakoari eta aplikatzekoak diren gainerako arauak jarraituz.

Arau honek aipatzen duen zerrendako izangaiari deitzea honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiak egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men eginen zaio, eta horretarako, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek frogatu beharko dute biktimak direla.

Momentu horretan, zerrenda osatzen dutenei eskatzen ahalko zaizkie deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo indarreko legeekin bat kautotutak.

Bederatzigarrena. Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta haiek aplikatzeko epaimahaia sorburu ez duten egintzen aurka, errekurtsa hauetariko bat paratzen ahal da:

a) Berraztertze errekurtsa, egintza gauzatu duen organismoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an. Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.